

Herrera

Eta bolatoki berria noizko?

Joan den larunbatean Euskal Herriko Bolatoki Txapelketa jokatu zen Herre-
ran. 45 bat lagunek parte har-
tu zuten, giro bikainean, gai-
nera. Izan ere, txapelketaren
ostean bazkaria egin zen Eus-
kal Giroa elkartearen. Bestalde,
Kiroletako Udal Patronatuak
karpa jarri zuen bolatokia es-
taltzeko eta euria oztopo izan
ez zedin. Hala ere, Herrera Ki-
rol Elkarteak bolatoki berri bat
nahi du. Herreran betidanik
bolozale asko izan dira. Egungo
bolatokiak 20tik gora urte di-
tu, eta elkarteok askotan
eskatu diote Udalari berri bat
egitea. Herrerako Kirol Elkar-

teko kideek esan digutenez,
arazoa lurzoruaren jabetza
da. Egungo bolatokia dagoen
lorzuroa Pasaiako Portuarena
da eta honek Donostiako Uda-
lak lorzurua erostea nahi du.
Kirol Elkarteak kideen hitzetan,
*"Egungoaren inguruan,
frontoia eta saskibaloizelaia-
ren artean, bolatoki berria egi-
tea bideragarria da. Estalia
eta harmailekin, gainera. Ai-
tzitik, Udala ez omen dago
prest lurzurua bere gain har-
tzeko. Beraz, bolozaleok bola-
toki zaharrarekin konformatu
beharko dugu, Pasaiako Portu-
koak ez baitaude prest inguru
horretan obrak egiteko"*.



Herrerako bolatokia txapelketa egun batean, jendez gainezka.

Intxaurrondo

Ikasleak ekitaldiz ekitaldi

Maria Auxiliadora ikaste-
txeko neska-mutilek ez
dute atsedenareko tar-
terik. Krosa egin berri dute,
eta datorren astean zahar
egoitzara joango dira bisitan.

Joan den igandean, krosa-
ren XIX. edizioa jokatu zen.
Bost lasterketa egin ziren eta
guztira, Donostiako hainbat
ikastetxetako 250 bat neska-
mutilek parte hartu zuten.

Zahar egoitzara bisitan

Duela pare bat hilabete Ma-
tia Fundazioak aitona-amonen
eta haurren arteko harrema-



Maria Auxiliadorako krosean 250 lagunek parte hartu zuten.

nak sendotzeko zenbait ekin-
tza jarri zituen abian. Ildo hon-
etatik hilaren 18an, astear-
tea, Maria Auxiliadorako zen-
bait ikasle Alai-Etxe zaharren
egoitzara joango dira, aurretik
prestatutako dantzak aurkez-

tera. Ez da hau, ordea, ikasle-
en eta zaharren arteko lehen
hartu-eman izango. Apirilean
30 bat ikasle zahar etxean izan
ziren, eta ondoren hiru amo-
nek ipuin kontaketa egin zuten
ikastetxean.

euskararen
donostia

patronatu



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Ipuin

kontaketa

- "Liburutegi zahar bateko zaindariaren abenturak"
5-10 urte bitarteko haurrentzat
Kontalaria: Kris Eizmendi
Ekainaren 19an, 18.00etan
Haur Liburutegian (Fermin Kalbeton kalean)

Antzerkia

- "Ali Baba eta berrogei lapurrak"
Ekainaren 12an eta 13an,
19.00etan
Zurriola ikastolan
- "Mutilak?"
Ekainaren 14an 19.00etan
eta Ekainaren 15ean 17.00etan
Zurriola ikastolan
- "Anarkista baten ezusteko heriotza"
La Tentación eta Zitzania Teatre taldearena
Ekainaren 20an, 20.00etan
eta Ekainaren 23an 20.00etan
Antzoki Zaharrean

Zinea

- "Ebaldeko Erregea"
Zuzendaria: Gregorio Muro
eta Carlos Zabala
Ekainaren 21etik aurrera,
ohiko ordutegietan
Príncipe eta Txingudi zineeta

**Zaharren etxera
joango dira
ikasleak**